



Hirigune Historikoa

- Turismo Bulegoa
- Aparkaleku
- Trena
- Osasun zentroa
- Farmazia
- 1. URDUÑA HIRIA Museoa

1. ORTÉS DE VELASCO EDO ARBIETO JAUREGIA

XVI. mendeko eraikin errenazentista da, eta ezaugarri militar nabariak dauzka, angeluen goiko aldean dauden zaintza-dorretxoetan antzematen den bezala. Jatorrizko eraikina harlanduzkoa zen oso-osorik, eta, harresira atxikita zegoenez, haren horma-atala dauka barruko aldean. Dena dela, ezkutuan geratu da, harresitik kanpo adreilu trinko estuzko eta egur-bilbezko arkupedun beheko oinplanoa eta goikoak zabaltzean. Gaur egun, luzituta dago, ordea.



2. JASOKUNDEKO ANDRE MARIA

Tenplu gotikoa hau XIV. mendetik XV. mendera garatu zen gehien. Jatorrizko sarbidea gaur egungo sarrerara dago atxikita, burdin hesiaren azpian, eta, bertan gainean, goiko aldean oraindik ere garai hartako harlangaitza daukan dorre handia dago. Barruko aldean, ostera, arkitektura gotikoa eta XV. mendearen amaieratik aurrera irekitako kaperak nabarmentzen dira. Bertan, gainera, lan ezin adierazgarriagoak daude ikusgai: Sortzez Garbiaren kaperax itxen duten burdin hesi errenazentistak edo San Pedro kaperako erretaula hispano-flandestarra. Era berean, absidedeko zerua estaltzen duten horma-pintura errenazentistak ere nabarmentzen dira.



3. MULTZO GOTORTUA

Tenpluko absideak edo goiburuak osatutako defentsa-multzoa da, eta, bertan, kontrahormen artean zulatutako erronda-pasabidea eta atxikitako harresidun eremua nabarmentzen dira. 1.500 metro karratu inguruko eraikin angeluzuzena da, eta multzoaren harlangaitz sendoak babesten du.



4. JAUREGI-DORREA DEN UDALETXEA

Jatorrizko eraikina XVI. mendekoa da, eta XIII. mendeko dorrera dago atxikita. Harresiak zeharkatzen zituztenen artean, zutik dagoen bakarra da, eta lehenengo kontzeju-etxea izan zen XV. mendean. Horren emaitza jauregi-dorre moduko multzo interesgarria da. Eskuinean, jatorrizko herri-gunean sartzeko jatorrizko atarietakoa dago ikusgai, Atari Iluna, alegia.



5. FORU PLAZA ETA ARKUPEAK

Jatorritik, merkataritza-jarduera handia garatzeko eremua izan zen, eta, XIII. mendeko bigarren zatitik, hirigunean geratu zen txertatuta. Euskal hiribilduetako Erdi Aroko azoka-plaza handiena da. Perimetro osoko arkupeak merkataritza-jarduera handiaren berezko elementua ziren, eta plazan egindako urteko bi azoka handiak ziren horren erakusgarri.



6. DÍAZ PIMIENTA EDO ZALDIBAR JAUREGIA

Funtsezko barrokismoaren eraikin eredugarria da, eta, bertan, harlandu ona zein alboko dorreak dauzkan gorputz nagusiaren diseinua nabarmentzen dira.



7. MIMENZA JAUREGIA

XVI. mendearen erdialdeko eraikin errenazentista da, alboetako batean kokatutako armarrian agertzen den datan azaltzen den bezala. Plazara begira dago sei arku landaturen bidez, eta goiko aldeko arkupeko galeria nabarmentzen da bertan.



8. ADUANA

Neoklasizismoko eraikin bereizgarria da, Karlos III.aren eta Karlos IV.aren erreinaldien artean (1787-1792) eraiki zuten eta fiskalizatzea eta salgaiak zein merkantziak kontrolatzea zen bere eginkizun argia. Alondegia ilustratuaren ereduarekin bat dator, eta, barruko patio nagusian nahiz gelek haren inguruan daukaten zirkulazioan, garaiko kanon arkitektonikoak betetzen dira.



9. FAMILIA SANTUAREN ELIZA

Tenplu barroko hau Juan de Urdanagiren mezenasgopean eraiki zen, eta familiaren armarría fatxadako goiko aldean dago ikusgai. Fatxada hiru kaletan dago banatuta, eta, bertan, anagrama jesuitikoak agertzen dira kartela ikusgarrietan. Ordena hori tenplura atxikitako ikastetxearekin batera zuzendu zuen jatorrian. Obretako zuzendaria Santiago Raón arkitekto frantsesa izan zen. Euskal Autonomia Erkidegoko erretaula-multzo handienetakoa dago barruko aldean.



10. VELASCO JAUREGIA

Eraikin errenazentista hau hiribilduko defentsarako hesiko kuboetako baten osagaia izan zen. San Frantzisko Ataritik hurbil egoteagatik eraiki zen, bide hori Burgosetik zetorren-eta. Velasco familiakoa zen Gaztelako kondestableak luzaroan eduki zuen penintsulako iparraldeko aduanetakoa itsasoko hamarrenak kobratzeko eskubidea.



11. OLASO JAUREGIA

Eraikin neoklasiko hau hiriguneko alboetako batean egon zen kokatuta, eta, jatorriz, Antiguako ataria zegoen bertan. Fatxada nagusian dago irekita erdi-puntuko arkuaren bitartez. Atariaren barruko aldeko apaingarriak nabarmentzen dira, baita mendebaldeko fatxadako teilatu-hegalean nekez antzematen ditugun apaingarri naturalistetan oinarritutako dekorazioa ere.



12. ANTIGUAKO ANDRE MARIAREN SANTUTEGIA

Gaur egungo santutegia XVIII. mendeko eraikin barrokoa da, eta Urduñako Hiriko armarría dauka kanpoko aldean. Barruko aldean, erretaula neoklasiko interesgarria dago, eta, bertan, zaindariaren irudia agertzen da Andre Maria gotikoaren prototipopean. Bere kokalekuak inguruko populaketaren jatorria zehazten duenez, lehenagoko eraikinak egon ziren gaur egungoaren aurretik. Hain zuzen ere, arkupe errenazentistaren azpian albo batean kokatuta dagoen ojiba-portada gotikoa da horren adierazgarri, eta, XVI. mende bete-betean, ostaturia zegoen bertan, baita atxikitako baseliza ere.



Euren historia daukaten kaleak eta harriak Erdi Aroko bilbean daude antolatuta, eta, bertan, arkupedun plaza handia da nagusi. Mendeetan eta mendeetan, merkataritzarako kokaleku estrategikoa izan da, eta, bertan, gainera, mesetatik itsasora zeramatzen salgaiak ere zergapetzen zituzten.

Gaur egun, Urduña harro-harro dago, Erdi Aroko jatorriko azoka-plaza handiena duelako Euskal Autonomia Erkidegoan.

Urduña historikoak lurraldetasuna, merkataritza eta fiskalitatea ditu hizpide. Beti-beti harrigarria den narrazio hori MULTZO HISTORIKO MONUMENTAL izendatutako gune historikoak berak egiten du.

Hona hemen bertako eraikin adierazgarrienak eta ondare artistiko nabariena. Azken horien artean, gainera, Kultura Intereseko Ondasun (KIO) moduan sailkatutako 3 erretaulak nabarmentzen dira.

*Lekuez gozatu
Xehetasunei erreparatu
Argazkiak atera eta partekatu*

Bisitaldi gidatuan parte hartzea narrazio hori ezagutzeko eta ondare artistiko zein monumentala ikusteko modu onena da. Ezinbestean bisitatu beharrekoa!

BISITALDI GIDATUAK
Eskuratour Orduña visit&bizi
616 57 41 32

eskuratour
Orduña visit & bizi

TURISMO BULEGOA
www.ordunaturismo.com
Foru Plaza, 9 - Alondegia
Tel. 945 38 43 84
URDUÑA
ORDUÑA



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GURE ERRETAULAK.

San Pedroko, Familia Santuko eta Antiguako erretaulak Urduñako hiriko altxor paregabea dira, eta hirurak INTERES KULTURALEKO ONDASUNA dira.

SAN PEDRO ERRETAULA

“Santa María de la Asunción”-eko harresitatuko elizaren izen bereko kaperan dagoen erretaula da, hau da, San Pedro edo Herran familiaren kaperan. 1516 eta 1520 urteen bitartean egin zen eta estilo gotikoa dute. Lehenengo kaperan dago, jatorrizko tenpluaren kontrahormen artean; XV. mendearen amaieran kokatzen da, hain zuzen. Eremu pribatu horren obra eta altzairu liturgikoa Herran familiak finantzatu zituen, garai hartan Urduñako familia garrantzitsuenetarikoa bat baitzen. Hispano-flamenko itxurako obra da, eta Ambereseko tailerrekin zerikusia du. Honako atal hauek ditu: bankua, bi gorputz eta azkentze bat. Horretan, aldi berean, San Pedroren bizitza (titularra) eta Jesusen bizitza (irakaslea) irudikatzen da. Taularen egituran dagoen kutxatila bakoitzaren ikonografia nabarmentzen da.



ANTIGUAKO SANTUTEGIKO ERRETAULA

1805 eraikitako erretaula neoklasikoa da eta Esteban de Alegriari egotzen zaio. Erretaulak bere xedea lortzen du, hau da, arreta horren protagonista eta titular denean jartzea. Tradizioak esaten duenaren arabera, birjina masustondo beltz batean agertu zitzaion abeltzainari. Eskultura XIV. mendekoa da eta ezkizko egurrez eginda dago. Metro bat neurtzen du eta garai gotikoaren Andra Mari eredu jarraitzen du.

Erretaula neoklasiko garaiko erretaula-multzoei dagoki, eta material bikainen erabileragatik nabarmentzen da, eta inondik inora imitazioak erabiltzeagatik. San Fernandoko Akademia Errealak gainbegiratuta egin izan zen oso-osorik.



FAMILIA SANTUAREN ERRETAULA MULTZOA

1688 eta 1689 artean eraiki zen, eta multzoak erretaula nagusia eta Familia Sakratuko Elizaren albo osatzen du. Multzoa tenplu barrokoan integratuta dago, eraikinari homogeneotasuna ematen baitio; eta gainera, jesuitiko egitura barrokoa erreferente bihurtzen du. Bere ikonografia Ignazio Loiolako Deunari erreferentzia egiten dio, atiko nagusian dagoen eskulturaren, eta atikoaren alboetan dauden misio jesuitekin zerikusia duten erretaulen bidez. Tenpluaren aldarean dagoen obra da; eta erretaula nagusiaren alboetan, bere mezenasen erlikiak daude; bi oliotan irudikatutako dauden Juan de Urdanegui eta Constanza de Luxán, hain zuzen.



Geure nortasuna!



**URDUÑA
HIRIA**

Bizkaia - Euskadi